

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Behin betiko onestea zerga ordenantza

Nola eta ez den erreklamaziorik aurkeztu landako taxi zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen ordenantza fiskala ezartzeko erabakiaren aurka hura jendaurrean egon zen bitartean (ALHAO, 145. zk., 2024ko abenduaren 23koa), behin betiko onetsi da, eta osorik argitaratzen da ordenantzaren testu osoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako:

IRUÑA OKAKO UDALAREN LANDAKO TAXI ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

Herri barruko taxi zerbitzua ezarri da herritarrak modu azkar, merke eta jasangarrian beren etxeetatik herrigunera eta herrigunetik etxeetara hurbiltzeko, udalerriko garraio publikoaren sektorea bultzatzeko eta lurralde oreka eta udalerriko mugikortasun jasangarria indartzeko.

Bestalde, eta Dublingo adierazpenean aurreikusitako jarduerak pixkanaka ezartzeko helburuarekin, adinekoekin adiskidetsuak diren hirien lehentasun estrategikoaren arloko printzipioak eta ekintzak babestu nahi dira haiek ingurune adiskidetsu bihurtzeko, OMEren European zahartze osasuntsua izateko estrategiaren eta ekintza planaren barruan.

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da landako taxi zerbitzua emateagatik ordainduko den prezio publikoa arautzea. Prezio murriztuko taxi zerbitzua izango da udalerriko guneeetan errolatutakoentzat, Langraiz Okako hirigunearekin konektatzeko, bertan baitaude zerbitzu nagusiak, hala nola Iruña Okako osasun zentroa, posta zerbitzuak, ikastetxeak, bankuak edo dendak, baita gainerako garraio zerbitzu publikoak ere.

2. artikulua. Landako taxi zerbitzuaren funtzionamendua

Zerbitzuaren ibilbidea erabiltzaileen etxebizitzetatik Langraiz Okako herrigunera eta alderantzizkoa izango da, hura baita udalerriko gunea nagusia, eta ez da aurreikusten udalerritik kanpoko ibilbiderik.

Zerbitzua jasotzeko, telefonoz deitu behar zaio taxi gidariari, gehienez 72 ordu aurretik, eta, gutxienez, zerbitzuaren aurreko egunaren 20:00ak baino lehen. Zerbitzuaren erabiltzaileek 8. artikuluan arautzen den prezio publikoa ordaindu behar dute.

3. artikulua. Landako taxi zerbitzuaren hartzaileak eta bete beharreko baldintzak

Zerbitzua Iruña Okako udalerriko Olabari, Mandaita, Tresponde eta Billoda herrietan errolatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago.

4. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Datuak ezkatzeagatik edo zerbitzurako eskubidea ematen duten baldintzetan iruzur egi-teagatik egindako arau hausteak datuak ezeztatzea ekarriko dute, bai eta bidegabeki lortutako deskontuak itzultzeko betebeharra ere, hargatik eragotzi gabe dagozkion legezko akzioak.

5. artikulua. Ordaintzera behartuak

Ordenantza honetan araututako prezio publikoa ordaintzera behartuta daude Iruña Okako Udalaren landako taxi zerbitzuari atxikitako ibilgailuetan lekualdatzen direnak.

6. artikulua. Zerga egitatea

Prezio publiko honen zergapeko egitatea landako taxi zerbitzuari atxikitako ibilgailuan/ibilgailuetan lekualdatzea da.

7. artikulua. Zerbitzuko tarifak

Landa eremuko taxi zerbitzua emateagatiko prezio publikoa 0,50 eurokoa da ibilbide bakoitzeko, BEZa barne.

8. artikulua. Ordaindu beharra

Prezio publiko hori lekualdaketa eskatzen den unean sortuko da. Prezioa ordaindu behar duenari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik jarduera egiten ez bada, kasuan kasuko zenbatekoa itzuli beharko da.

9. artikulua. Kudeaketa arauak

Ordenantza honetan jasotako prezio publikoak eskudirutan ordainduko dira.

Prezioa zerbitzuaren adjudikaziodunari ordainduko zaio zuzenean. Hemen araututako prezio publikoengatik zorrak premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez eskatu ahal izango dira, aplikatzekoa den bilketa araudiaren arabera.

Zerbitzua egin ondoren, ez dira itzuliko udal honekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ordaindutako zenbatekoak.

Prezio publikoa ordaintzen ez bada, ezingo da zerbitzua jaso harik eta ordaindu arte. Udalak eskaintzen dituen zerbitzu horiek aldatu egin daitezke zerbitzuaren arrazoiak direla medio, eta erabiltzaileei behar adinako aurrerapenaz jakinaraziko zaie zerbitzuren bat egitea ezinezkoa bada.

10. artikulua. Legedi aplikagarria

Ordenantza honetan aurreikusten ez den guztirako, Arabako Toki Ogasunen Foru Arauan, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginean (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia), Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta bat datozen gainerako legerietan xedatutakoa beteko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantzaren testu osoa Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean ordenantza hau.

Iruña Oka, 2025eko otsailaren 12a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ANGEL MONTES SANCHEZ